

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

307/2019 Foru Agindua, uztailaren 8koa, zeinaren bidez erabakitzen baita ebaztea Itelazpi SA sozietateak kudeatzen duen eta Uribarri Gaubeako herriaren jabetzako onura publikoko 125 "El Raso" mendian kokatuta dagoen telekomunikazio zentroaren okupazioa erregularizatzeko espedientea

Ikusi da Uribarri Gaubeako Kontzejuak 2018ko uztailaren 11n egindako eskaera, zeinaren bidez Nekazaritza Sailari eskatzen baitaio erregularizatu dezala Uribarri Gaubeako Kontzejuaren jabetzako onura publikoko 125 "El Raso" mendi katalogatuan dagoen eta Itelazpi SA sozietateak kudeatzen duen telekomunikazio zentroaren okupazioa, okupazio kanon bat ezarrita.

Oinarritzat hartu da Mendi Zerbitzuak 2019ko otsailaren 22an horretarako emandako txostena argitzeko ea bidezkoa eta komenigarria den ofizioz hastea Itelazpi SA sozietateak kudeatutako zentroaren okupazioa erregularizatzeko prozedura –Uribarri Gaubeako herriaren jabetzako onura publikoko 125 "El Raso" mendian dago zentroa—, zeinetan irizten baitaio jabari publikoko lursail okupatu horren jabea administrazio batzar hori dela eta legitimazio osoa duela erregularizazio espedientea sustatzeko, Itelazpi SA sozietateak ez daukala okupazio hori egiteko gaitasuna ematen dion titulurik, eta erregularizazioa administrazio kontzesioaren bidetik egin beharrekoa dela, okupatutako lursailaren titularrarentzat ordain ekonomiko bat ezarri, horretarako egin den txosten tekniko-ekonomikoari jarraituz.

Kontuan hartu dira arrazoi horiek, eta eskatutako prozedura horri ekiteko eskaera onartu da.

Espediente hori hasi eta ebazteko eskumena Nekazaritza Saileko foru diputatuari dagokio, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak xedatutakoari jarraituz.

Ikusi dira xedapen horiek eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 59. artikuluan xedatutakoa eta aplikatzekoak diren legezko manua, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak emandako ahalmenez baliatu naiz.

Mendi Zerbitzuak prozeduraren instrukzioa sustatu du Itelazpi SAK kudeatzen duen eta Uribarri Gaubeako herriaren jabetzako onura publikoko 125 "El Raso" mendian kokatuta dagoen telekomunikazio zentroa okupatzeko baldintzak ezartzeko.

Ikusi da martxoaren 5eko 105/2019 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita abiaraztea Itelazpi SA sozietateak kudeatzen duen eta Uribarri Gaubeako herriaren jabetzako onura publikoko 125 "El Raso" mendian kokatuta dagoen telekomunikazio zentroaren okupazioa erregularizatzeko espedientea, non jasotzen baitira administrazio prozedura abiarazteko arrazoiak.

Ikusi dira Itelazpi SAK eginiko oharrek entzunaldi izapidean eta espedientearen interesdunei hamar egunez eskura jarritako aldiaren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikulua aplikatuz.

Kontuan hartu dira Mendi Zerbitzuak izapidetutako espedientearen eta hura osatzen duten dokumentuak; baita Mendi Zerbitzuak Itelazpi SAren oharrei buruz 2019ko ekainaren 4an eginiko txostena ere.

Bukatu da El Rasoko zentro igorleak OPko 125 mendia okupatzea erregularizatzeko prozeduraren instrukzioa.

Xedapen horiek ikusi dira eta erabat arrazoituta dago egindako proposamena, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 84. artikuluan xedatutakoa betez.

Zuzenbideko oinarri hauexek hartu dira kontuan:

Uribarri Gaubeako Administrazio Batzarraren uzia zuzenbidearen arabera da arrazoi hauengatik:

El Rasoko komunikazio zentroa, eta bertara iristeko bidearen zati bat, Uribarri Gaubeako herriarena den onura publikoko 125 "El Raso" mendiaren lurretan eraikita dago. Mendi hori Arabako onura publikoko mendien katalogoan sartuta dago, katalogo hori Sustapen Ministerioaren 1909ko maiatzaren 5eko Errege Aginduak behin betiko onartu zuenetik.

Transferentzien Bitariko Batzordearen 1985eko irailaren 16ko Erabakia betearaztearen bidez emaniko Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 5eko 336/1985 Dekretuaren arabera, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiak (hemendik aurrera AFA) dituen zerbitzuak Eusko Jaurlaritzari eskualdatzen baitzaizkio, EAEk daukan ondareari dagokio El Rasoko komunikazio zentroa osatzen duten instalazio guztien titulartasuna; baina instalazioena baino ez, inola ere ez baitzaio eskualdatu komunikazio zentroak kokagune dituen eta Uribarri Gaubeako herriarena den onura publikoko mendiaren zati diren lurren titulartasuna.

Egiatztatuta gelditu da Itelazpi SA enpresak ez daukala titulu egokirik Uribarri Gaubeako herriaren den OPko 125 "El Raso" mendiaren erabilera pribatiborako.

Okupazioa da "El Raso" mendi katalogatuaren zati bat modu pribatiboan erabiltzea haren legezko jabea, hau da, Uribarri Gaubeako Kontzejua, ez den beste erakunde batek, eta okupazioa denez, Arabako Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak (hemendik aurrera MFA) 24. artikuluan xedatutakoa bete behar du; izan ere, artikuluko horrek dioenez, katalogatutako mendi bat partez okupatu behar izanez gero, horretarako administrazio baimena eman behar du mendien arloan eskumena daukan foru aldundiko sailak, eta lege manu horrek berdin eragiten die MFA indarrean sartu aurretik egindako okupazio guztiei, ikusita zer jasotzen duten Mendien azaroaren 21eko 43/2003 Legeak bere lehen xedapen iragankorrean eta apirilaren 28ko 10/2006 Legeak, zeri eta baso jabari publikoaren mendiari, hau da, OPko 125 "El Raso" izeneko mendiari, onura publikoko mendien katalogoan sartuta egoteagatik eragindako zortasunak eta beste karga batzuk berrikusteari buruz.

MFAren 24.1. artikuluko xedatutakoari dagokionez, bateragarriak dira oraingo okupazioa eta erabilera eta mendiaren onura publikoko izaera (gainazaleko eragina < ehuneko 0,01), baldin eta bete egiten badira proposamen honen xedapenen zatian jasoriko baldintzak.

Mendiaren jabe den erakundea, Uribarri Gaubeako Kontzejua, ez dago okupazioaren aurka, baldin eta berdin betetzen bada MFAren 26. artikuluan ezarritakoa, baita okupazio kanona ezartzearena ere.

Aztertu dira telekomunikazio zentroaren okupazioaren ezaugarriak, eta frogatuta geratu da bateragarria dela mendiaren onura publikoarekin.

Kontuan hartu da Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak xedatutakoa eta ikusi da Nekazaritza Saileko foru diputatuari dagokiola espediente hau abiarazteko eta ebazteko eskumena, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak xedatutakoari jarraituz.

Esandako guztiagatik, eskaera aztertuta eta proiektua mendiaren onura publikoarekin bateragarri dela frogatutzat emanda, Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak III. kapituluko 24. eta 26. artikuluetan xedatutakoaren arabera,

Horregatik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ebaztea Itelazpi SA sozietateak kudeatzen duen eta Uribarri Gaubeako herriaren jabetzako onura publikoko 125 "El Raso" mendian kokatuta dagoen telekomunikazio zentroaren okupazioa erregularizatzeko espedientea.

Bigarrena. Baimena ematea Gaubeako udalerriko 8 poligonoko 465 eta 462 katastroko landa lurzatietan 198,38 m² okupatzeko (horrek dakar herrigunea handitzea); lurzati hori onura publikoko 125 "El Raso" mendian dago, mendia Uribarri Gaubeako herriarena da, eta okupatutako area horretan daude El Rasoko zentro igorlearen instalazioak, zeintzuetan sartzen baitira komunikazio dorrea, oinplanoan 43,55 m² daukan etxola, bai eta energia elektrikoaren hartunea eta perimetro itxitura ere.

Hirugarrena. Onespina ematea jabari publikoaren erabilera pribatiborako ematen den administrazio kontzesioa (OPko 125 "El Raso" mendia), baldintza hauekin:

1^a. Kokapena, okupazio eremua, instalazio nagusiak eta linea elektrikoaren okupazioa.

- Kokapena: Gaubeako udalerriko 8 poligonoko 465 eta 462 katastroko lurzatiak, zeinak Uribarri Gaubeako OPko 125 "El Raso" mendiarenak baitira.

- Okupazio area: ITELAZPI SAK bidaliriko planoaren arabera, 198,38 m² da zentro igorlearen instalazioek okupaturiko azalera (proiektuan jasoriko hedapena sartzen da).

- Instalazio nagusiak: 31 metroko garaierako komunikazio dorrea, oinplanoan 43,55 m² daukan etxola eta perimetro itxitura.

- Linea elektrikoaren okupazioa: hartune elektrikoak OPko 125 "El Raso" mendian, 210 m²-ko aireko tartea eta 22 m²-ko lurpeko tartea; hartune elektrikoak Gaubeako Udalaren titulartasuneko OPko 111 "Los Cascajos eta El Hayal" mendian, 4.560 m²-ko aireko tartean.

2^a. Zentro igorlerra sartzeko bide nagusiak erabilera desberdinak dauzkanez, Itelazpi SAK bide hori mantentzeko egingo duen ekarpena bidez egiten duen erabileraren proportziokoa izango da. Proportzionaltasun hori mendiaren erakunde titularrarekin adostu beharko da eta Mendi Zerbitzu honi jakinarazi beharko zaio 2019an. Edonola ere, Itelazpi SAK izango du ardura itxuraberritzeko baimendutako arearen barruan eta okupazio azalera kanpo zentro igorlea kudeatu eta ustiatzearen ondorioz kalteku daitezkeen zonak.

Ezin izango dira hara sartzeko beste bide batzuk erabili, lehenago Uribarri Gaubeako herriak baimena ematen ez badu.

Enpresa esleipendunak du instalazioaren ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalteen gaineko erantzukizun zibila.

3^a. Hasiara batean 30 urtekoa da okupazio epea, eta gehienez ere 75 urte arte berrizta daiteke, horixe baita toki araubidearen legediak finkatzen duen epea, betiere ematen zaion erabilerak bere hartan jarraitzen badu.

4^a. Erakunde titularrak ezar dezakeen kanona gorabehera, honela ezartzen da Itelazpi SAK ordaindu beharreko kanona eta haren berrikuspena:

Itelazpi SAK ordaindu beharreko kanona eta haren berrikuspena:

— Uribarri Gaubeako Administrazio Batzarraren alde: 8.488,54 euro urtean; haietatik:

Telekomunikazio zentroaren erabilera pribatiboagatik (198,38 m²): 8.476,94 euro urtean.

Linea elektrikoak dakarren basoko demanioaren okupazioagatik: 11,60 euro urtean.

– Gaubeako Udalaren alde:

Linea elektrikoak dakarren basoko demanioaren okupazioagatik: 228,60 euro urtean.

Kanona urtero berrikusiko da, unitateko prezioak, aurreko hamabi hiletako KPlaren arabera eguneratuta, eguneraketaren unean dauden azalera baldintzetara, dorrearen garaierara eta instalatutako elementuetara egokituta aplikatuz, 1 zenbakiko dokumentuan (txosten tekniko ekonomikoa, 2018ko abenduaren 26koa: kanonaren kalkulua El Raso telekomunikazio zentroak OPko 125 zenbakiko mendia okupatzeagatik) adierazitako irizpideen arabera, okupazioa erregularizatzen duen foru agindua aldatuz.

5^a. Kanona urtero berrikusiko da aurreko hamabi hilabeteetako KPlaren arabera eguneratuko diren aleko prezioak aplikatuta azaleraren baldintzei, dorrearen altuerari eta kanona eguneratzean instalatuta dauden elementuei, irizpide gisa hartuta kanonaren txosten tekniko-ekonomikoan adierazitakoak, El Rasoko telekomunikazio zentroak OPko 125 mendia okupatzeagatik, eta berrikuspena egingo da okupazioa arautzen duen foru agindua aldatzearen bidez. Horretarako, okupazioaren kontzesioaren datatik urtealdia bete aurreko 15 egunetan, enpresa kontzesiodunak txosten bat bidali beharko du elementu instalatuen datuak eguneratuko dituen. Kanonaren urteko berrikuspena egiteko balioko du.

Dorrearen altueraren eta okupazioaren azaleraren aldaketatik eratorritako eguneraketak haiexek baimentzen diren unetik aurrera egiten dira.

6^a. Linea elektrikoan azpiko landaredia garbitzeko lanak, bide ertzak mantentzekoak edo beste edozein esku hartze egin behar izanez gero onura publikoko landaredian, Mendi Zerbitzuko langileen ikuskaritzapean egin behar dira, hark kontrolatuko ditu-eta egin beharreko sastraka kentze, inausketa eta zuhaitz mozte lanak, langile horiek seinalatu beharrekoa seinalatu eta gero, eta aprobetxamendua, halakorik egonez gero, mendiaren erakunde titularraren onurarako izango da.

7^a. Okupazio epea beteta, edo baimena ematearen helburu den erabilera lehenago bukatuta, titular kontzesiodunak, gehienez ere urtebeteko epearen barruan, instalazioak kendu eta eragindako lurra itxuraberritu beharko ditu.

Laugarrena. Ebazpen hau katalogatutako mendi publikoa okupatzeko izapideari dagokio, eta ez du kontzesioduna salbuesten indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen beste baimen eta lizentzia batzuk izapidetu beharretik.

Bosgarrena. Hirugarrena. Foru Agindu hau jakinaraztea Uribarri Gaubeako Administrazio Batzarrari, Itelazpi SA sozietateari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Seigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 8a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LOPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE